

ERREMINTA. Itxura ona eman zuten estreinakoa Basabe, Imanol, Zarraga eta Gaubekak

Uste baino errazago irabazi dio Insausti txapeldunak Rekalderi

Pilotakada indartsuekin nagusituta, hasieratik alde handia hartu zuen pilotari nafarrak

INSAUSTI	35
REKALDE	24

Iraupena: 65 minutu.

Saketik: Insaustik 6, eta bi falta egin zituen; Rekaldek, aldiz, 5, eta faltarik ez.

Markagailua: 4-1, 6-1, 13-3, 21-12, 24-14, 25-19, 31-22 eta 35-24.

Bestelakoak: Jende ugari bildu zen finalerdietako partida ikusteko Deportivoko pilotalekuan. Dirua Insausti faborito nafarraren alde irten zen hasieratik. Jendea gustura geratu zen jaialdian ikusitakoarekin, batik bat lehenengo eta hirugarren partidetan profesionaletan estreinakoa jokatu zuten pilotariak erakutsitako jokorekin. Harritu zen bat baino gehiago Gaubekaren mailarekin.

Dani Gibelalde | **DONOSTIA**

Oskar Insausti txapelduna gailendu zitzaion Juan Rekalde atzelariari Euskadiko Txapelketako finalerdietako ligaxkakoa bigarren partidari.

Hasieratik izan zen nagusi Insausti, eta berehala hautsi zuen partida. Bera zen faborito, eta ez zuen hutsik egin. Rekaldek ezin izan zien erantzun aurkariaren pilotakada indartsuei.

Halaber, ez zen tanto ikusgarri askorik ikusi, eta, gainera, emozio gutxikoa izan zen norgehiagoka.

Partida erdi aldera, aldea murritzeta lortu zuen Rekaldek, baina ordutik aurrera, nafarra izan zen jaun eta jabe. Hauxe du Insaustik azken txapelketa, ondoren erretiratu egingo baita. Sei txapel ditu irabaziak,



LUIS JAUREGIALZO / ARGAZKI PRESS

Zarraga eta estreinakoa jokatu zutenetako hiru (Larrinaga, Basabe eta Imanol), atzo, Euskalen.

eta zazpigarrena lortzeko bidean da.

Bestalde, atzo jokatu zuten lehen aldiz Basabe, Imanol, Larrinaga eta Gaubekak profesionaletan. Basabe eta Imanolek 35-30 irabazi zieten Zarraga eta Larrinagari. Ondo aritu ziren laurak partida horretan, eta maila handiko pilotarien itxura eman zuten estreinakoa jokatu zutenek. Basabe eta Zarraga paretsu aritu ziren aurrean, eta Garmak baino hobeto jokatu zuen atzean Imanolek.

Beldarrainen laguntzaz, Gaubekak ere irabazi egin zuen berlehen partidari. Gainera, bera izan zen lauretan onena.

ERREMONTEA

Ezkurak galdu binakakoan

Atzo jokatu ziren Binakako Txapelketako lehenengo bi partidak. Galarretan, Altuna II.ak eta Etxabek aise menperatu zituzten Ezkurra eta Urko, 40-19. Urkori lana pilatu zioten Altunak eta Etxabek, eta ez zuen jokoan sartzeko aukera askorik izan Doneztebeko txapeldunak. Urko gaztea ez zen fin aritu, eta huts egin zuen errebotean. Etxabek zortzi tanto egin zituen sakez, eta Altuna II.a izan zen lauretan onena. Bestalde, Euskalen, Altuna I.a eta Eizagirre gailendu ziren Zeberio II.ari eta Aizpuruari irabazita. Eizagirrek sakearekin asmatu zuen, eta nahikoa lan izan zuen Aizpuruak pilotak eramaten: askoz gehiago izan zen Eizagirre atzean. Soilik hasieran izan zen partida orekatua. Ondoren, bederatzi tanto jarraian egin zituzten Altuna eta Eizagirrek.

ESKU-HUSKA. Xalak sasoiko dagoela erakutsi eta irabazi egin zuen Azpeitian, Zezeagarekin batera

Mikel Goñik eskura izan zuen partida Titinen aurka, baina porrot egin zuen berriro

D.G. | **DONOSTIA**

Gertu izan zuen garaipena Mikel Goñik Titinen aurka Etxebarri jokatuak partidari. Ostira-lean erraz nagusitu zitzaion Triziokoa, baina atzo biek jokatu zuten ongi.

Nor baino nor gehiago aritu ziren aurrean, eta bata zein besteak tanto ederrak egin zi-

tuzten. Hala ere, zazpi pilota galdu zituen Goñik. Horietatik hiru, azken txanpan. Atzean, Berna izan zuen lagun Titinek, eta Lasa III.a izan zen Goñiren bikotekidea.

Parekatua suertatu zen Vallesadon (Segovian) jokatuak binakakoa: Koka eta Peñagarikano 22-20 irabazi zieten Oinatz Bengoetxea eta Belokiri. Tanto

politak ikusi baziren ere, lau pilotariak huts dezente egin zituzten. Hasieran Koka eta Peñagarikano aurreratu ziren, baina aurkariak partida orekatzea lortu zuten. Berdinketa ugari izan ziren, azkena hogeina.

Arrasaten, berriz, Unanuek eta Patxi Ruizek 22-19 irabazi zieten Asier Olaizola eta Pascuali. Bikain aritu zen Unanue, hasieran batik bat: tantoak erraz amaitu eta gantxo ederrak egin zituen; 12-3 ipini ziren aurretik. Ondoren, aurkariak buelta eman zioten (13-15), Goizuetako aurrelariaren lanari esker.

Azkenean, Unanuek erabaki zuen partida: bi tanto egin zituen saketik, eta trebe aritu zen tantoa amaitzen.

Bestalde, partida gogorra jokatu zuten Azpeitiko frontoian. Beste behin ere, sasoiko dagoela erakutsi zuen Xalak, eta Zezeagarekin batera, menpean hartu zituzten Nagore eta Armendariz. Orotara, 10 tanto egin zituen aurrelari lapurtarrak; horietatik bi, sakez.

Zezeagari lana pilatzen saiatu ziren Nagore eta Armendariz, baina ongi eutsi zien Uberako atzelariak.

JAIALDIK

OSTIRALEKO EMAITZAK SESTAO.

Gonzalez-Eulate 22; Berraondo-Hirigoien 14. Titin III.a-Goñi III.a 22; Goñi II.a-Elkoro 7.

BEASAIN.

Gipuzkoako Klub arteko txapelketa: Azkoitia 22; Hernani 1 (kadeteak). Añorga 11; Intxaurren 22 (jubenilak). Añorga 14; Reala 22 (nagusiak).

ATZOKO EMAITZAK VALLELADO.

Salaberria-Balerdi 12; Leiza-Medina 22. Koka-Peñagarikano 22; Bengoetxea VI.a-Beloki 20.

ARRASATE.

Urkia-Lujan 40; Unda I.a-Torre 27. Unanue-Ruiz 22; Olaizola I.a-Pascual 19.

AZPEITIA.

Arbizu-Begino 19; Otaegi-Auxkin 22. Nagore-Armendariz 20; Xala-Zezeaga 22.

ETXEBARRI.

Agirre-Laskurain 14; Del Rey-Arroyo II.a 22. Titin III.a-Berna 22; Goñi II.a-Lasa III.a 18.

EUSKAL.

Zeberio III.a-Gaztelu 25; Zalakain-Amenabar 40. Binakako Txapelketa: Zeberio II.a-Aizpuru 25; Altuna I.a-Eizagirre 40. Matxin II.a-Txikuri 37; Urretabizkaia I.a-J. Etxeberria 40. Iribarren-Mendizabal 26; Zeberio I.a-Ekiza 30.

GALARRETA.

Larrea-Reklusa 33; Uterga-Barrenetxea II.a 35. Binakako Txapelketa: Ezkurra-Urko 19; Altuna II.a-Etxabe 40. Iñigo-A. Lekunberri 24; Matxin III.a-Lizaso 40. Sarasua-Aizpuru II.a 21; Bereziartua-Badiola 30.

DEPORTIVO.

Basabe-Imanol 35; Zarraga-Larrinaga 30. Euskadiko Txapelketa (finalerdietako ligaxka): Insausti 35; Rekalde 24. Gaubeka-Beldarrain 35; Urkijo-Garma 30.

GAURKO PARTIDAK

EIBAR. 17:00.

Etxaniz-Imaz / Galarza V.a-Rai. Capellan-Apeztegia / Agirre-Elkoro. Txafee-Bernal / Baleztena-Taberna.

CALAHORRA. 12:00.

Etxaniz II.a-Almadoz / Otaegi-Galarza IV.a.

GALARRETA. 16:00.

Ziganda-Lander / Martinez-Barrenetxea II.a. Altuna II.a-Eizagirre / Zeberio II.a-Etxabe. Bitoria-Auzmendi / Kalonge-J. Etxeberria. Agirresarobe-Ekiza / Bereziartua-Badiola.

ASTELEHENEKO PARTIDAK

TOLOSA. 16:00.

Beloki II.a-Galarza VI.a / Azpiroz-Nalda. Unanue-Beloki / Olaizola I.a-Ruiz. Alustiza-Begino / Saralegi-Erasti.

DEPORTIVO. 17:00.

Urrezko Xistera Torneo (finalerdia): Alberdi I.a-Iriondo / Konpa-Barrondo. Buruz Buruko Txapelketa: Juan Pablo / Rekalde. Daniel-Beldarrain / Iriondo-Galan.

ASTEARTEKO PARTIDAK

DEPORTIVO. 16:00.

Urrezko Xistera Torneo (finalerdia): Goixerri-Felix / Alberdi II.a-Goitia. Daniel-Beldarrain / Iriondo-Fernando. Buruz Buruko Txapelketa: Insausti / Lujan. Unda I.a-Garrido / Urkia-Torre.